

## DEKANOTZA TALDEAREN PROGRAMA 2021-25

Hautagaitza hau, sufragio unibertsal haztatuaren bidez 2021eko maiatzaren 11n izango diren Dekano hauteskundetarako aurkeztuko da. Zortzi pertsonak osatzen dugu taldea, Fakultateko bi graduetako irakasleak, Ekonomia Aplikatua I, Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia, Enpresen Antolaketa, Gizarte Psikologia, Soziologia eta Gizarte Langintza sailletakoak. Funtsezkoa deritzogu Gizarte Langintza eta Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako diziplinak UPV/EHUren barruan erreferente gisa kokatzeko behar diren urratsak ezartzea.

Hemen jasotako hauteskunde programak Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak 2021-25 aldirako lortu beharreko oinarrizko helburuak jasotzen ditu. Fakultateak ibilbide bat egin du jada, non egiturak eta funtzionamendu bateratu eta sendo bat eraiki diren, eta orain urratsak egiten jarraitzeko unea dugu haren hobekuntza kualitatiboari dagokionez, gizartearen inbrikatzearen ondorioz sortutako erronkei eta erronka akademikoei erantzuteko. Bereziki aipatu behar dira, zentzu horretan, alde batetik, Eusko Jauriaritzaren 2018ko dekretuaren graduko eta masterreko unibertsitate ikasketen kategorizazioari lotutako baldintzak, eta, bestetik, UNIBASQen gomendioak, kudeaketa sistemaren diseinua ziurtatzeko.

Bestalde, talde gisa, erabat inplikaturatuta gaude euskararen erabilerarekin, Fakultateko komunikazio hizkuntza gisa erabil dadin, eta horrez gain, oso presente ditugu genero berdintasuna, jasangarritasuna eta gizartearekiko konpromisoa. Fakultatearen lema, hots, "Berdintasunaren eta aberastasunaren banaketa zuzenaren alde", jarrera hori jasotzen du, neurri handi batean. Era berean, nazioartekotzearen aldeko konpromisoak erabakigarria izan behar

duela ulertzen dugu, funtsezko pausoa baita gure fakultatearen etorkizunerako.

Jarraian, proposatzen ditugun ardatz eta estrategia nagusiak azaltzen ditugu.

### Fakultatearen egiturak indartzea:

- Fakultatea **kudeatzeko eredu bat**, erantzungo diena, bai kanpo kalitate eskaera berriei, bai oraingo funtzionamendu egiturak doitzeko eta hobetzeko beharrei.
- **Bi egoitzen arteko koordinaziotik eratorritako lorpenak** mantentzea eta hobetzea, esate baterako, ikastegiaren webgunea, eta horiek erabiltzea hala kohesio tresna gisa, nola barne eta kanpo komunikaziorako tresna gisa.
- Fakultateko bi graduetako **gaien intersekzioak** indartzeko lan egitea, elkarlanean egindako jarduerak indartzeko.
- **Graduondoko eskaintza** finkatzea, eta proposamenak berrikustea, eskakizun akademikoen eta lan merkatuaren eskaeren arabera.

### Komunikazioa:

- Fakultateko irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak dekanotza taldearen kudeaketa eta erabakien **jakinarazpena**, barneko komunikabideen bitartez.
- Kanporako **komunikazio estrategia indartzea**, besteak beste,

UPV/EHUK eskura dituen tresnak erabilita, fakultatea bereak diren gaietan erreferentziazko eragile gisa ikusarazteko eta posizionatzeko, bai arlo akademikoan, bai, oro har, gizartean.

- Ikastegiko **irakasleek askotariko lan arlotan egindako lana zabaltzea**, bai fakultateko tresnen bidez (webgunea, buletina, sare sozialak), bai UPV/EHUK dituenen bidez (sare sozialak, Campusa aldizkaria, prentsa kabinetea).

### **Ikasleak:**

- Neurriak diseinatzea, **ikasleen parte hartzea** bultzatzeko ikastegiko jardueretan.

- Espazioak sortzea (ez fisikoak), ikasleek **prestakuntza eta dibulgazio jarduera propioak** egin ditzaten.

- **Jardunaldien eta ikastaroen eskaintza** dibertsifikatzea, ikasleen prestakuntzarako eskaintza osagarri gisa.

### **Irakaskuntza berrikuntza eta ikerketa:**

- Graduetan **irakaskuntza berrikuntza inplementatzeko** bideak ezartzea, UPV/EHUK eginiko deialdien eskakizunei erantzunez, eta irakasleek dagoeneko garatutako irakaskuntza berrikuntza proposamenen balioa agerian uztea eta zabaltzea.

- **Docentiaz** programa bultzatzea, fakultateko irakasleen artean.

- Ikastegiko irakasleen **ikerketetan laguntzea**, Gizarte Langintzari eta Lan Harremani eta Giza Baliabideei lotutako gaietan: ikerketari buruzko tailerrak eta mintegiak antolatzea, inpaktu aldizkarietan argitaratzea, prestigioko

ikertzaileekin jardunaldiak eta hitzaldiak egitea, besteak beste.

- Lan egitea **zeharkako gaitasunak** gure graduen eskaintzan txertatzeko.

### **Gizartearekiko konpromisoa:**

- **Interes taldeekin** (elkargo profesionalak, etab.) loturak areagotzen jarraitzea, Fakultateko jardueren partaide izateko aukerak emanaz eta baterako jarduerak eginez.

- **Gizarte Aholkularitza eta Laguntzako Zerbitzua** (Gizarte Langintzatik) bultzatzea UPV/EHUn, Psikologia Zerbitzuaren lankidetzaz, zerbitzu horren lana osatuz gizarte alderdietan.

- **Gradu Amaierako Lanak** gure graduen berezko ikerketa arloen difusiorako erabiltzea, curriculumeko eta borondatezko praktikan inplikaturako interes taldeen itzulera gisa.

- Bitartekoak ezartzea **egresatutako ikasleekiko loturak mantentzeko**, etorkizunean lankidetzak egiteko curriculumeko eta borondatezko praktiken arloan edo hitzaldi nahiz mintegietan.

Era berean, aukeratuak izanez gero, programa benetan egin izanaren ebaluazio publikoa egiteko konpromisoa hartzen dugu, eta, horrela, gutxienez bi urtez behin egindako jardueren balantzea egingo dugu.

Tarteko aldian, idatziz erantzungo zaie programa osatzen duten puntuetako bakoitzaren garapenari buruz egin daitezkeen galderei.